

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ONDARROAKO UDALAREN 2012-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Ondarroako Udalaren 2012ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala eta bere sozietate publikoa barne hartzen dituenak- legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udalaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta 2012ko ekitaldian indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela hainbatetan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak, batik bat, hainbat kontratutan publikotasun eta lehia printzipioak urratu direlako; azpimarratzekoak dira horien artean Zeharbidea urbanizatzeko 2. fasea eta futbol zelaiaren zaharberritze lanak.

Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du kontuen aurkezpen eta edukuari dagokionez; nolana den ere, 2012ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzea eta data horretan amaitutako ekitaldiko Emaizten Kontua ez ditu aurkeztu, tokiko sektore publikoaren araudia urratuz. Gainera, salbuespen bat azpimarratu du kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 0,6 milioi euroan gehitu dutenak.

Ondarroa Lantzen, SA sozietate publikoak legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2012ko ekitaldian zehar ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia.

Sozietate Publikoaren urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da txostena idatzi den datan, saldu gabeko izakinen gauzatze balioaren gaineko zalantza salbuespen izanik, higiezin merkatuak bizi duen egoeraren ondorioz.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, diru-laguntza, kontratazio eta beste hainbat arlotan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez ondorioztatu da Udalaren sarrera eta gastu arrunten egiturak gorabeherak erakutsi dituela 2010-2012 aldian, ezohiko sarrera eta gastuen eraginaren ondorioz; alabaina, urterik txarrenean ere (2011) sarrera arrunten % 9ko aurrezki garbi positiboa eskuratu du; horrek, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin eta geldikinarekin batean, inbertsio programa esanguratsuak finantzatzeko bide ematen du.